

Bageraren buletina

2020 azaroa

Kaixo bagerakide!

Hilabeteko buletinaren bidez, azaroan izango ditugun ekimenen berri eman nahi dizugu.

Euskaraldia 2020



Euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala bertan da. Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. 2020an, **azaroaren 20tik abenduaren 4ra** egingo dugu ariketa eta aurtan, norbanako bezala (ahobizi edo belarriprest izanez) parte hartzeko aukeraz gain, taldean parte hartzeko aukera ere izango dugu arigune-en bidez.

Oraindik ez duzula Euskaraldian izena eman? Eta zeren zain zaude? www.euskaraldia.eus helbidean sartu eta aukeratu rola.

Txapak dagoeneko eskuragarri daude Bagera Elkartean.

Mintzalaguna egitasmoa

Mintzalaguna egitasmoa duela 27 urte sortu zen Donostian euskararen erabilera areagotzeko asmoz. Oraingo egoera berezia, bada ere, segurtasun neurriak hartuta (protokolo bat osatu dugu, espazio seguruak auzo ezberdinetan, talde txikiak ...) **azaroaren 9tik aurrera** mintzapraktika saioak martxan jarriko ditugu.

Aparteko ekintzei dagokienez, hilero egin ohi genituen aparteko ekintzak (irteera, afaria...) Covid 19a dela eta, urte amaierara arte behintzat, ez dugu aurreikusten horrelakorik. Egoera hobetuko balitz, 2021ean aztertuko dugu egingarriak diren edo ez.

Jardunaldia 2020

Aurtengo Bageraren jardunaldia San Telmo Museoa egingo dugu **azaroaren 14an, 10:00etatik 13:30era**, "Euskararen diskurtsoak. Zaharrak berri?" izenburupean. Euskararen inguruan azken urteetan ematen ari diren diskurtso ezberdinak izango ditugu hizpide.

Gonbidatuak Kike Amonarriz Gorria (Euskal Filologian lizentziatutako soziolinguista), Jone Miren Hernandez Garcia (Gizarte antropologia irakaslea) eta Miren Artetxe Sarasola (Euskal bertsolaria eta ikerlaria) izango dira. Dinamizatzailea Lander Arbelaitz kazetaria.

Izen ematea beharrezkoa da www.bagera.eus helbidean.

Egitaraua:

09:45-10:00 Ateen irekiera eta izen ematea

10:00-10:30 "Gure diskurtsoak eta euskara: Zer dugu berritzeko edo egokitzeko?"

Kike Amonarriz Gorria (Euskal Filologian lizentziatutako soziolinguista)

10:30-11:00 "Euskara, gazteen ispilua"

Jone Miren Hernandez Garcia (Gizarte antropologia irakaslea)

11:00-11:30 "Bertsolaritzatik hiztun berrietara, hiztun berrietatik hizkuntzara"

Miren Artetxe Sarasola (Euskal bertsolaria eta ikerlaria)

11:30-12:00 Atsedena

12:00-13:30 Mahai ingurua

Kike Amonarriz, Jone Miren Hernandez eta Miren Artetxe. Dinamizatzailea Lander Arbelaitz.

Errigora

Azaroaren 12ra arte izango da Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka kanpainaren 2020ko edizioa. Urtero bezala, data hauen artean Nafarroa hegoaldeko produktu bikainez osatutako saskiak eskatu ahal izango dira.

Aurten 3 saski izango dira aukeran: beltza (betikoa), berdea (ekologikoa) eta zuria (berezia).

Saski hauek erostean, hartu ez ezik, eman ere egingo duzu. Saski mota bakoitzarekin oparitxo bat jasoko duzu eta AEKari, Ikastolen elkarteari edo Sortzeni 5€ bideratuko zaizkio.

Saskiak Bagera Elkartearen eskatu ahalko dira azaroaren 12ra arte 943005074 telefono zenbakira deituz edo bagera@bagera.eus helbidean.



Saski beltza 55€



Saski berdea 65€



Saski zuria 75€

Euskal lokuzioen tailerra

Azaroaren 9tik 30era (astelehenero) euskal lokuzioen tailerra antolatu dugu Joxerra Garciarekin (euskal idazlea, kazetaria eta EHUKo irakaslea). Euskara zorroztu eta biziagotzeko tailerra izango da. Orotara 8 ordu izango dira, 4 saiotan.

Zineforuma: Tomboy

Bagerako Zine Forumak berriz jarriko ditugu martxan. Urtea amaitu baino lehen bi filma proiektatuko ditugu, jatorrizko hizkuntzan euskarazko azpituluekin eta ondoren solasaldia. Lehenengoa **azaroaren 13an** eskainiko dugu, arratsaldeko 18:30etan Lugaritz Kultur Etxean: "Tomboy" frantsesez euskarazko azpituluekin. Gonbidatua Einarr Manterola Fernandez (Naizen elkarteko kidea).

Bikografiak: bi ibilbide elkarrizketan

Bi parte hartzaileen biografien errepasoa izango da *Bikografien* saioaren ardatza. Bakoitzaren alde publiko/ezagunaz gain, beren bizitzen inguruan solastea da ideia. Biografian hizkuntzekiko harremanak beren bizitzan izan duen bilakaerari arreta berezia eskainiko zaio. Anekdota, gertaera xebreak, bizipenak ... Elkarrizketa informal hauen bidez, hizkuntzak herritarren bizitza pertsonaletan eta eguneroko bizitzan duten isla jarri nahi dugu agerian. **Gonbidatuak Ursula Strong ("Niña Coyote" bateria) eta Getari Etxegarai Turrillas (euskal aktore eta zuzendaria)** izango dira. Saioa Bageraren youtubeko kanalean ikusgai egongo da, **azaroaren 20an**, 18:30etik aurrera. Hamaika telebistan ere ikusteko aukera izango da.

Auzoko egitasmoa

Ikasturte honetan, zalantza bezalako ikasturtea izan arren, gogotsu ekin diogu AUZOKO egitasmoa berreskuratzeari eta azaroan bi talde martxan edukitzea espero dugu. Bata Ongi etorri eskolara elkarteko kideekin batera osatu duguna, Egia auzoan, eta bestea Bagera Elkartearen bertan burutuko duguna.

Egiako saioa asteazkenetan egingo dugu, 14:45etatik 16:00etara. Bagera Elkartearen egingo duguna, berriz, ostegunetan egingo dugu 19:00etatik 20:15etara.